

Hezkuntza Publikoa indartzeko **DENOK GREBARA!**



Irakasleak: U22-23 eta 026-27

ELA, Steilas, LAB eta CCOO sindikatuek **lau greba egun deitu ditugu urtarrila (22-23) eta otsaila (26-27) artean.**

Greba egunak **gure lan-baldintzen sakoneko hobekuntza lortzeko helburua**rekin deitu ditugu. Horrela, urtarrilaren 22an dinamika horri hasiera emango diogu, azken 15 urteetan pairatu dugun lan-baldintzen okertze prozesuarekin amaitzeko asmoz.

Greba egun horietan aldarrikatuko duguna gure lan-baldintzen sakoneko hobekuntza da eta zentzu horretan, hurrengoak dira azken ikasturteko mahai negoziatzaileetan eta gainerako lanketetan **ELAk aldarrikatu eta defendatu dituen oinarritzko edukiak:**

1. Lan zama arindu: lanaldi murrizketak, baliabideen hornikuntza handitzea eta ratioen jaitsiera esanguratsu eta orokortua.

- Urteko lanaldiaren murrizketa 1.170 lan orduetara eta irakastorduak murriztu etapa guztietan eta langile guztientzat.

	Orain		ELAren aldarrikapena	
	HH-LH	Irak. ertainak	HH-LH	Irak. ertainak
Asteko lanaldia	30	30	30	30
Asteko eskola orduak	23	17 / 18	20	15
Asteko ordu osagarriak	7	13 (edo 12)	10	15

- Baliabide hornikuntza handitu, adb.: Hezkuntza premia berezietako baliabideak, psikologoak, IKT arduradunak).
- Burokrazia eta lan zama arintzeko neurri zehatzak ezarri.
- Gutxieneko eta gehienerako ratioak modu esanguratsuan jeitsi. Proposamen zehatza:

Etap	Gutxiengo ratioa	Gehiengo ratioa
Haur hezkuntza (2 urteko gela)	10	12
Haur Hezkuntza (bigarren zikloa)	10	15
Lehen hezkuntza	10	20
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	10	20
Batxillergoa	10	20
Lanbide heziketa	10	15

2. Gazteberritze plana. Galduta eskubideak berreskuratu eta erretiro adina eta baldintzak hobetu. Jomuga irakasle oro 62 urteren bueltan eta dirurik galdu gabe erretiratu ahal izatea.

- Itzarriko ekarpenak berreskuratu eta erretiro primak berrezarri.
- Erretiroa hartzeko baldintzak hobetu. Errelebo kontratua irakasle funtzionarioentzat ere eta baldintza onenetan (%75/%25).

- Lanaldia murrizteko eta metatzeko eskubidea onartu. Proposamen zehatza:
 - 58 urtetik aurrera lanaldi 1/3 murrizteko aukera eta 61 urtetik aurrera lanaldiaren 1/2, eta akumulatzeko aukera.
 - Erretiro adinerarte heren eta erdi guztiak batera gozatzeko eskubidea ordaindutako baimen moduan.

3. **Eros-ahalmenaren berreskurapena:** 2010etik galdutako eros-ahalmen guztiaren aitortza eta hura errekupeartzeko soldata igoerak:

- Berehalako %5,4ko soldata igoera: 2021-2024 bitartean galdeutako eros-ahalmena berreskuratzeko.
- 2010-2021 aldiko eros-ahalmenaren galera zor gisa aitortu eta berreskuratzeko neurriak adostu (galera hori %11,85ekoa da). Hortaz, hitzarmenaren indarraldiaren baitan KPlaren gairdiko igoerak:
 - 2025erako eta 2026rako: KPI + %2ko igoerak (%11,85eko zorra kitatzen joateko neurri gisa).

4. **Enplegua.** Plantillaren kontsolidazio erreala gauzatu: behin-behinekotasun tasa errealak %8a ez gairditzeko konpromisoa.

- Egiturazko langile guztiak kontsolidatu: azken 4 urtetan errepikatu den gutxieneko langile kopurua hartu erreferentzia gisa eta salbuespenezko kontsolidazio prozesu bidez eskaini.
- Behin-behinekotasun tasak %8a ez gairditzeko 2 urtero adostutako LEP-ak.

5. **Lan-osasuna erdigunera**

- Azterketa medikuak urtero izateko eskubidea bermatu.
- Arrisku psikosozial eta ergonomikoen azterketa burutu eskola bakoitzean eta urtebeteko epean neurriak adostu.
- Osasun arazoak eta gaixotasun kronikoak dituzten langileen lan-baldintzak hobetzeko plan bat garatu.

Aipatutako bost gaiak eta horietan **zehaztutako helburuak ezinbestekotzat jotzen ditugu**. Horietara heltzeko eduki zehatzak planteatzen ditugu, negozioazio prozesu baten baitan horiek xehetasunez joratzeko aukera egon daitekelarik.

Adirazitakoez gain, hurrengoak ere berariaz aipatu behar ditugu: **Hezkuntza sistemen euskalduntzea, ordezkioen lan-baldintzen hobekuntza, berdintasun planak adostea eta lizentzia eta baimenak hobetzea.**

Lau greba eguneko dinamika abian jartzea lortu dugu! ELA prest dago aldarrikape-nok lortu arte abian jarritako greba dinamikari jarraipena eman eta horren intentsitate-a igotzeko. **Irakasleen atxikimendua edukiz gero, ELAk grebak sostengatzeko baliabideak ditu. Hezkuntza publikoa indartzeko, denok grebara!**

Hezkuntza Publikoa indartzeko **DENOK GREBARA!**

Irakasleak: U22-23 eta 026-27

1. **Lan zamak arindu!**
2. **Erretiroa aurreratu!**
Gazteberritze plana!
Primak eta ltzarri berreskuratu
3. **Erosahalmena berreskuratu!**
KPlak langile denontzat!
4. **Enplegua egonkortu eta bermatu.**
Behin behinekotasun erreala %8ra jeitsi
konsolidazio bidez!
Fusio eta itxiera bidezko lanpostu
suntsiketarik ez!
5. **Ordezkoen lan baldintzak hobetu eta guztion**
lizentziak eta baimenak hobetu
6. **Azterketa medikuak eta arrisku psikosozialen**
azterketak egin, gaixotasun kronikoak
dituztentzat egokitzapenak!
7. **Berdintasun eta euskara**
planak garatu!

